

## Erromeria, Azkorteko ermitan

Santa Krutz egunarekin bat eginez, ospakizun polita egin zuten Urrietako ermitaren inguruetan / 2-3



**Partaidetzako aurrekontuen edizio berria martxan da Urnietan** / 13



**Teresa Amuategi haur parkea estaltzeko lanak iragarri ditu Urrietako Udalak** / 13



### Giro ederrean igaro dira

Hiru gauzez eta lau egunez, partaidetza handiko jaiak izan dira Santakruzak / 4-11

AIURRI



## ALTUNA

SAGARDOTEGIA - SIDRERIA

Txotx bukaera: **Maiatzak 17, igandea**  
Erreserbak: **943 554 917 - 650 266 925**  
[www.altunasagardotegia.eus](http://www.altunasagardotegia.eus)

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna\_sagardotegia

Eskerrik asko denboraldian zehar gurera gerturatu zareten guztioi!

Gogoratu kupel desberdinetako sagardoa botilan edo txotx mugikorrean izango duzuela eskuragarri urte guztian zehar.



Akorteko paraje ederrean ospatzen da Santa Krutz jaiak. AIURRI

## Ohikoan baino lagun gehiago, Azkorten

Jende mordoxka igo zen Azkorteko parajeetara igandean, eta Santa Krutz erromeri-jai politaz gozatzeko aukera izan zen. Txalotzekoa da festa girotzeko lanetan aritu ziren gazte kultur-gileak, musikariak zein bertsolariak, urnietarrak zirela

**Xabier Lasa** URNIETA

Urnietako Udalak antolatu zuen festa, ohi denez. Herritik Azkortera eta Azkortetik herrira etengabe ibili zen busa eta pintxo zein edariak kantinan dohainik eman zizkieten erromeria zaleei. Bestalde, aipatzekoa da festa girotze-lanetan aritu ziren gazte kultur-gileak, musikariak zein bertsolariak, urnietarrak izan zirela. Komerik erromeria taldeak 11:00etatik aurrera jarri zuen festa, eta ondoren, Unai Gaztelumendi eta Andoni Mujika bertsolariak hartu zieten lekukoa, hain zuzen. Azkenik, mezarekin eman zioten amaiera ospakizunari.

### Azken urtetan baino jendetsuagoa

Azken urtetan ez bezala, adin guztietako erromeria zaleak bildu zituen Santa Krutz jaiak igandean; biziagoa izan zen plazan dantzarako grina ere, eta azken batean, famili-giroa na-

gusitu Azkorteko zelaietan, Ergoien auzoan.

Parte-hartzearen handitze horri dagokionez, zenbait faktore eragile aipatu genitzake. Horietatik lehenbizikoa, doinu dantzagarriak plazaratzen zaildua den Komerik talde gazteak zein Unai Gaztelumendi eta Andoni Mujikak daukaten eskualdeko jendea erakartzeko ahalmena, urnietarrak izaki.

Aurten jaiak igandean egokitzek ere lagundu egin du betibeti azaldu ohi diren helduak ez ezik gazteak eta familiak ere bertara zitezen; izan ere, astegunetan, normalki, goiz partean lantokian edo ikastetxeetan izan ohi dira horiek guztiak.

### Meza, erromeriaren ostean

Pittin bat harridura eragin zuen egitarauan meza erromeriaren eta bertso saioaren ostean ipini izanak. Bazuen arrazoirik ezohiko orden horrek. Izan ere, apaiza izateko bokazio eskasia dela

eta ikusia daukagu nola dabilzan azken urtean apaizak herriz herri goiz berean bizpahiru meza ematen, jai egunetan. Urnietako erretoreari halaxe gertatu zitzaion, Astigarragan zeukala konpromisoa 10:30ean eta, segidan, igandero bezala, Urnietako San Migel elizan meza, eguerdiko 12:00etan, alegia. Ezin, beraz, 13:00ak baino lehenago ekin mezari Azkorteko ermitan. Hortik, beraz, egitaraua mezarekin ixteko arrazoia.

Izan zen egoerari txantxaz heldu zionik Azkorten, eliza katolikoak gizartean iraganean eduki zuen agente moralari lotutako oroimen historiko kritikoa hizpide hartuta. “Garai batean, mezetan bekatu guztietatik libratu ondoren, eroso ateratzen ginen Elorriagako plazara bikoteari gerritik helduta dantzatzeko gogoz. Gaur, berriz, kontuz ibiltzen al gara, plazan *egindakoak* aitortu behar ko ditugu-eta ondoren elizan”.

## Gazte urnietarren txanda

Hernaniko eta Urnietako musikari gazteek osatzen duten Komerik taldeak girotu zuen festa, igandean



Komerik taldeko kideak, aurreko igandean. AIURRI

**Xabier Lasa** URNIETA

Joseba Arretxe Goenaga (trikitia), Libe Iribar Rodriguez (ahotsa, trikitia eta panderoa), Leire Ibañez Urdangarin (baxua), Enaitz Mendizabal Elizegi (bateria) eta Noa Sarriegi Santa Cruzek (ahotsa eta gitarra) osatzen dute Komerik taldea. Musika eskolatan hazi eta hazitako urnietar eta hernaniar gazteek 2023ko irailean jo zuten jendaurrean, lehenbizikoz, Komerik talde gisa, eta jada makina bat plazatan jardun dute geroztik.

Doinu zein kantutegi tradizionalekin lotu izan dira erromeriak, eta oinarri horri eusten dio boskoteak. Nolanahi ere, gaur egungo euskal melodi berriak ere tartekatzen dituzte, Azkorten erakutsi ahal izan zuten bezala.

Ondoko herrian, Andoainen, bezperan, gau galanta zegoen iragarrita gazteentzat. Tentaldia eduki zuten hara joateko, baina etxean geratzea erabaki zuten, jakinda goiz samar zela Azkorten eman beharreko musika saioa. Horrela, emanaldi berezi samarra zela Azkorteko erromeria aitortu zuen Joseba Arretxek, oholtzara igo aurretik. “Beti dauka aparteko esanahia herrian jotzeko; plazera da guretzat, eta eskertu behar diogu udalari aukera hau eman izanagatik. Astegunetan izaten da normalki, eta herriko gazteek ez daukate hartuta igotzeko ohitura; gehiago hartzen dute parte adinean gora doazenean. Hala ere, bada-kigu senide eta ezagun batzuk etorriko zaizkigula gaurkoan, dagoenari aurre egingo diogu”.

Adierazi zutenez, ez daude ohituta goizeko 11:00etan jotzera, baina gogo onez hartu zuten aukera, “ilunabar-gaueko giroan jotzekoak gara gehiago, eta erakargarria egiten zaigu tarteka erregistro horretatik aldentzea eta bestelako formatuak probatzea”.

Gauzak horrela, errepertorioa bertan zegoen ikuslegoaren arabera moldatzen badakitela erakutsi zuten, eta ondo gauzatu zutela aurretiaz jarri zuten nahia, esan daiteke.

Plazetan hasi berri samarrak dira, baina ibilian-ibilian, gehitzen joan zaizkie jotzeko eskararak. Uda izan arren erromeria-taldeentzat urteko sasoirik oparoena, udaberrian ere sasoi betean dabilzala adierazi zuen Arretxek, “zenbait plaza lotuta dauzkagu jada, eta beste asko baieztatzeko dauzkagu. Gertue-nak, oraingoz, maiatzaren 29an Bergaran eta maiatzaren 29an Urnietan, gazte festan”.

Plazetako dantzaldiak indarberrituta ote dabilzan galdetuta, baietz erantzun zuten. “Badaude aldeak tokitik tokira, baina euskal giroetan ikusten da gero eta errazagoa dela jendea mugitzea”.

Maiz, Disko Jartzaileekin partekatzen dituzte gauak. “Gure txanda izan ohi da lehenbizi, eta ondoren DJa dator. Nork bere publikoa eramaten du plazara, eta elkar partekatzen ditugula esan daiteke; bateragarriak izateaz gain, aberasgarria ere egiten zaigu proposamen hori”.

## Plaza dantzari gazteak, Azkorteke erromerian

Dantzazale amorratuak izanik, dantza-saio ikusgarriak egin zituzten plazan

**Xabier Lasa** URNIETA

Uxue, Irati eta Izaro gazte urnietarrak, oinez nahiz autoan, gogo biziz igo ziren Azkorteke festara. Halaxe adierazi zuen Iratik, musika taldeak bere joaldia amaitu bezain pronto. “Lehen ere etorri izan gara Azkorteke festara, oso ondo pasatzen dugulako; zer esanik ez Libe gure lagunak Komerik taldean jotzen baitu! Gehiagotan igoko ginatke, baina eskola egunetan ezinezkoa zaigu”.

Dantzazale amorratuak izanik, dantza-saio ikusgarriak egin zituzten plazan, Komerik taldearen doinu bizien pean. “Uxue eta Izaro Egape dantza taldean hasi berriak dira; ni ere urtetan aritu izan naiz taldean, eta orain utzi behar izan dut ikasketak direla eta. Lehertu arte dantzan egiteko asmoz etorri gara, eta pozten naiz taldetxo txiki batek plazari bixitasun pixka bat eman



Uxue, Irati eta Izaro urnietarrak. AIURRI

diogulako. Dena dela, urnietarroi zer edo zer kostatzen zaigu plazarako pauso hori ematea! Ez da erraza esplikatzeko Egape dantza taldeak egiten duen ika-ragarritzko lana euskal dantzen sustapenean, eta gero, nolako erreparoa dauzkagun plazara irteteko! Ez dakit lotsagatik ote den ala zergatik ote den!”.



Dantza egiteko aukera aparta dago Azkorteke parajearen. AIURRI



Ezuste atsegina hartu zuten. AIURRI

## Oiartzungo familiarentzat lehen aldia izan zen

**Xabier Lasa** URNIETA

Maitane eta Garikoitz bikoteak eta Uxuri eta Nahiane alabek osatutako familia ederki asko gozatu zuen Azkorteke jaiarekin. Halaxe aitortu zuen Maitanek, “Oiartzundik heldu gara, nire ahizparekin eta familiako beste kide batzuekin. Gure iloba Komerik taldeko bateria-jolea da, eta nahiko aitzakia izan dugu hori animatzeko. Lehenbiziko aldia da Azkorteke gatzela, eta pozik gaude, oso jai-giro politarekin egin baitugu topo, eta gainera, non, eta natur-paraje ederrean, ermita ondoan! Dena esatera, goizean-goiz bazkaria prestatuta utzi eta eguerdi aldera etxera itzultzeko asmotan etorri gara, baina hemen dagoen giroa ikusita, eta pintxoren bat edo beste janda, iruditzen zait uste baino gehiago luzatuko dela gure egonaldia”.

## Bigarren ospakizuna, igande honetan, Azkorten

Lasarte-oritarrek ere erromeria antolatzen dute Azkorten. Jarrera, egitaraua:

**10:30-14:30** Salda, txorizo egosia eta edariak, tabernan.

**10:45-12:15** Lierni Arozena eta Olaia Rekondo trikitilariak.

**12:15-13:15** Herri kirolak: Murgertza anaiak, aizkorarekin; Beñat Telleria, harriak jasotzen.

**13:15-14:00** Meza.



Beñat Gaztelumendi eta Andoni Mujika bertsolariak. AIURRI

## Bertso saioa

Aurten etxeko bertsolariak igo ziren oholtzara. Beñat Gaztelumendi eta Andoni Mujika bertsolariek sagardo falta eta ur eskasia hizpide izan zituzten:

**Beñat Gaztelumendi:**

*Oholtzara nahi genuen ondo apuntatu,  
horretarako gera gu biyok juntatu.  
Baina ezarriya ere pixka bat gastatu.  
Sagardoa ez al da goiz samar bukatu?*

**Andoni Mujika:**

*Oso goiz bukatu da ta ez da jolasa.  
Nola sagardo egarriz dagon hemen plaza.  
Kalkulua gutxigo egin dute antza.  
Nei pintxo eztairitik behera etzait pasa.*

**Beñat Gaztelumendi:**

*Orduan eztarrian daukazu propina.  
Hola nola alaitu gu biyon arima?  
Sagardoa nahi genuen ta falta, lastimal!  
Berriz ere faltako zaigu gasolina.*

**Andoni Mujika:**

*Beraz, guk gasolina tragoan hartuta.  
Sagardoa edaten gaudenez ohituta,  
saioa urarekin beharko da buka,  
txar bat bota ezker ez da gure kulpa.*

Oso argigarria izan zen bertsolarien solasaldia. Izan ere, bakoitzak bere santuak ditu!

**Beñat Gaztelumendi:**

*Anatx gaztia dago mezarako izu.  
Azterketa dagola egin dute abisu.  
Proba egin nahiean, hementxe naukazu:  
Aita Santua zein den ba ote dakizu?*

**Andoni Mujika:**

*Izena esateko ez daukat hain errez.  
Elizakin ez baitet hamaika interes.  
Niri galdetu behar zuk hartzeko babes.  
Ez izenik, ez dakit eta zuk ere ez.*

**Beñat Gaztelumendi:**

*Hemen ez al gabiltza nahiko atrebitu?  
Galdetzen hasi eta hainbeste meritu,  
ta santua zein den ezin entenditu,  
ta hark gure izenak igual jakingoitu.*

**Andoni Mujika:**

*Gureak jakin bai eta ta horrekin ze tratu.  
Nola guk ezin degu nahi gisa aldatu.  
Baina, Aita Santua? Barkatu, barkatu:  
Basarri ta Uztapide, bertsolayen santu.*



Urnieta  
udala



Lebiton eta Krutzi, Zubiaurre etxeko balkoian. Eta, gainerakoetan, konpartsako buruhandi guztiak. Zubian, aldiz, konpartsako erraldoi guztiak. AIURRI

# Herria herri egiten dutenen alde mintzatu zen Lebiton

**APIRILAK 30, OSTEGUNA** JAIETAKO LEHEN EGUNA

Udalerriko elkarteak eta gizarte eragileak aintzat hartu zituen Lebiton konpartsak, jaien hasierako pregoian. Ikusgarria izan zen erraldoi eta buruhandi guztiak elkartzea

**Erredakzioa** ANDOAIN

Jaietako lehen egunean antzematen da festarako gogo bizia. Aurtengoan, bereziki, jendetza zebilen kaleetan eta festa bihar munera arte luzatu zutenak ez ziren gutxi izan. Gautxorien argazkia ikustea besterik ez dago: jendetzak egin zuen gaupasa. Gaua iritsi aurretik jaietako protagonistek Zubiaurre etxea hartu zuten. Etxe osoa, bai horixe. Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsak irakurri zuen pregoia eta balkoi guztietan egin zuten agerpena buruhandiek. Espaloitik Zubiaurre etxera begira jarrita, irudia ikusgarria zen. Eta, metro gutxira, konpartsaren hamar erraldoiak. Sekulako erakustaldia eman zuten. Egia esan, ez zen gutxiagorako, ohore handia baita Santa Krutz jaietako pregoilaria izatea. 30. urteurrenaren ospakizunak bikain abiatu dituzte.

**Eskuzabal jokatu zuten pregoian**

30 urtez egindako lana aitortu zien Jai Batzordeak. Lebiton konpartsak, ordea, beste askoren lana aintzat hartzeko aukera baliatu zuen. Hala, gizarte bizi-tzaren eta modu aktiboan parte hartzen duten herrikideen nahiz elkarten aldarrikapena egin zuen Santa Krutz jaien hasierako pregoian: "Herria mugitzeko, bizitzeko eta biziartzeko muxtruk beraien denbora emango duten pertsonak behar dira. Pregoia Andoain kolorez eta bizitzaz betetzen duten bihotz eta buru guzti horiei eskaini nahi diegu". Eta, segidan, herriko kultur, kirol eta gizarte mailako eragileak aipatu zituzten. "Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz" esanez amaiera eman zioten pregoiari, aurrean zuten jendetzaren txalo parrada jaso zuten bitartean.



Amas eta Otamendi nagusitu ziren gizonezkoen eta emakumezkoen lehia. AIURRI



Haur pregoian hiru ikastetxeetako bina ikasle igo ziren oholtzara. AIURRI



Amaia Oreja eta Kristina Solano izan ziren Olagain txistularien emanaldi bereziko gonbidatuetako bi. AIURRI

## Pregoilarien afaria Mizpiradin



Barrasa, Egaña, Asensio, Agiñarte eta Barrutia, txapela jantzita. AIURRI

**Omenduak** Iker Egaña, Gari Asensio, Diego Barrasa eta Unai Barrutia konpartsakide beteranoek ezusteko omenaldia jaso zuten Mizpiradiko afarian. Bertso-sorta abestu zieten eta txapel bana jantzi zieten. Agiñarte garraiolaria omendu zuten, lehenxeago.



Konpartsakideak, afalostean. AIURRI

**Konpartsakideak** Sekulako festa egin zuten Mizpiradin, jasotako aitorza behar bezala ospatuz. Pregoia ematea ez baita ardura eskasa eta, behin mandatuarekin kunplituta, ospakizunetan murgildu ziren.



Sarasola anaiak, urte luzez, Andoaingo dultzaineroak. AIURRI

**Sarasola anaiak** Urte luzez Andoaingo kaleak girotu zituzten dultzainarekin. Hamar urte dira azken emanaldia egin zutenetik baina aurtengoan berragertu dira. Izan ere, eurak ere badira konpartsaren ibilbidearen partaide.



Askotxo ziren eta gehiago izan zitezkeen argazkia iragarritako orduan atera izan balute. Izan ere, 08:00tarako iritsi ziren gautxoriak ez ziren argazkian atera ordu laurden lehenago atera zutelako. AIURRI

# Guatxoriek goizalderarte eutsi zioten jaiari

## MAIATZAK 1, OSTIRALA JAIETAKO BIGARREN EGUNA

Jendetza ibili zen bezperan. Biharamunean ere jendetzak bat egin zuen jaiarekin. Oro har, partaidetza handia izan da aurtengo Santa Krutz jaietan

### Erredakzioa ANDOAIN

Ostiral goizean gautxoriei etxerako bidea hartzea kostatu egin zitzaion. Dena esatera, goizeko 08:30ak aldera oraindik bluxadun ugari ikus zitezkeen Kale Nagusian eta Zumea plazan. Baina jaiak aurrera darrai eta kale-garbitzaileek sekulako lana egin zuten –gainerako egunetan bezala–, kaleak korrikalarientzat eta txirindularientzat egokitze-ko. Bide batez, jaietan gehien erabiltzen diren plazak eta kaleak lehen ordurako garbitu zituzten.

### Kirol hitzorduak

Haur krosa, helduen krosa, txirindularitza proba... kanpoko kirolari ugari bertaratu zen maiatzaren lehenean. Eguerdian herriko festazale ugari elkartu zen auzo bazkarian, Kale Nagusian. Azken urteotako joerari eutsiz, kalearen zati handia behar izaten da mahaiak eta aulkiak jartzeko. Mexikar doinuek alaitu zuten bazkalostea. Aurten jai-egunak lau bakarrik izan direnez, arreta pizten duten beste bi ekitaldi iritsi ziren arratsaldean. Batetik, erreka-

jaitsiera. Inoizko parte hartze handienarekin iritsi dira 25. urteurrenera. Eguzkik, ohi bezala, jaiak eta aldarrikapena uzartu zituen erreka jaitsieran. Arratsaldeak aurrera egin ahal, elkartearen arteko bakailao txapelketak ikusle ugari elkartu zituen Irunberri elkatearen parean. Zumatarrakoak izan dira aurtengo irabazleak.

Gaua iristearrekin batera, Lebi zezen-suzkoaren jaietako lehen irteera izan zen. Eta, txosnagunean, Hazas taldeak gaztetxoaren arreta bereganatu zuen.



Horrela jarraituz gero, Kale Nagusi osoa beharko da auzo bazkarirako. AIURRI



Aurtengo podiuma, eta sukaldariak: Irabazlea: Zumeatarra (Joxe Mari Navaridas eta Andoni Fernandez); 2. sailkatua, Ontza (Ignacio Díez eta Juanma Garcia); eta, 3. sailkatua, Peña Santa Krutz (Roberto Couto eta Juan Carlos Couto). AIURRI



Aurtengo krosean nabarmendu ziren korrikalariak: Joseba Olaetxea eta Eguzkiñe Zabaleta. AIURRI

## Partaide ugari erreka jaitsieran



Errekan eta zubiaren inguruetan jendetza elkartu zen. AIURRI



Zumeatarra taldeko boluntario talde handiari esker egin ahal izan zen maiatzaren leheneko krosa. AIURRI



Xaxiko partaideak, taldeko argazkian. ARAKAMA



Olazarren hasi eta Olagainera iritsi ostean, herrigunerantz abiatu ziren. AIURRI



Haur eta gaztetxoek mailako txirrindularitza proba, Kale Berrian. AIURRI

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA



Zumea plazako karpan bazkaria egin zuten eta bertan zuten sagardoa edateko kupela. Une dibertigarri ugari izan ziren, bereziki, bazkalosteko jolas eta probatan. AIURRI

# 600 lagunetik gora, Kuadrilla eguneko bazkarian

## MAIATZAK 2, LARUNBATA JAIETAKO HIRUGARREN EGUNA

Goizean hasi eta ordu txikiak iritsi bitarte, gazte bluxadunek koloreen ortzadarra osatu zuten. Parte hartzailea eta jendetsua izan da aurtengo Kuadrillen eguna

### Erredakzioa ANDOAIN

Lehen bi gauetan festazale ugari zebilen kalean. Larunbatean, Kuadrillen egunean, parranda giroa goizean abiatu zen. Giroa berotuz joan zen, goizean, kuadrillen arteko jolasetan. Une goren ugari iritsi ziren ondoren: Zumea plazako bazkarian, kalez kale egindako kalejiran, Malko-garriyaken kontzertuan eta, hortik aurrera, jaiaz gozatzeko indarrak zituztenen artean.

Eguneko hitzordu nagusia Kuadrillen Eguna izan bazen ere, badira azpimarratu beharreko beste hainbat. Eguerdian, aurreko urteetan bezala, hunkigarria izan zen Joxe Ramon Ansaren aldeko omenaldi-ekitaldia. Eguerdian ere Urki dantza taldeak erakustaldia eman zuen Zumea plazan. Eta bazkaltzeko ordua iritsi ahala, bermuth garaian, DJ Ezekielek musika doinu dantzagarria jarri zuen.

Arratsaldean artisautzako garagardoa dastatzeko aukera izan zen. Bien bitartean, Iruzta taldeak girotu zuen Zumea plazako olanapea. Gauean, jaietako larunbatetako ohiturari eutsiz, Santa Krutz Peñaren danborrada aritu zen kalez kale. Eta, egunari amaiera emateko, Muxutruk taldeak erromeria egin zuen Txosnagunea. Hirugarren eta azken gauean, kalean egoteko giroa bikaina zen.



Kale Nagusian jolasak egin zituzten. AIURRI



Bekoplazan, Juanita Alkain plazatxoan... jolaserako tartea izan zen goizean. AIURRI



Xake taldeko txapelketaren sari banaketa ekitaldia, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI



Bermuth musikatua egin zuten maiatzaren 2an. AIURRI



Urki dantza taldeko kideak, emanaldia amaitu berritan. AIURRI

## "Ez gaude ahaztuta"



Jose Ramon Ansa Etxeberriaren omenezko ekitaldia. AIURRI

1979ko maiatzaren 6an, Santa Krutz jaietan, Triple A talde ultras kuindarrak hil zuen Jose Ramon Ansa Etxeberria Upategi baserriko (Buruntza) gaztea. Andoaindarra gogoan hartu zuten senide, lagun eta herritarrek maiatzaren 1ean Kaimuturrean egin zuten ekitaldian. Han zirenek Jokin Sorozabalek eta Aitor Mendiluzek jarritako bertsoak abestu zituzten, Mikel Urdangarinen "Badira hiru aste" doinupean. Honatx, bertso-sorta hunkigarria:



Lore-eskaintza egin zuten. AIURRI

### Jokin Sorozabal

*Egun triste hartan gelditu ginan  
denok barruak nahastuta  
hemen gertatu ziren gauz batzuk  
izenik ere ez du-ta,  
baina oroimena ez daramagu  
gorrotoakin puztuta  
soinu askorik ez degu egin  
baina ez gaude ahaztuta (bis)*

### Aitor Mendiluze

*Oso gaztea nintzen artean  
halere honen testigu  
gure herrian alde denetan  
latzak gertatu zaizkigu  
baina gogoan jasotzen denak  
gero balio hori du  
aurrera egiten jakin izanak  
asko erakusten digu (bis)*

### Jokin Sorozabal

*Berdintsua da denen mina ta  
berdintsua denen pena  
berdin-berdina batzuek eta  
besteek sufritzen dutena  
eta biktima izendatzeko  
ez begiratu izena  
askorentzako deus gutxi zera  
baina guretzako dena (bis)*

### Aitor Mendiluze

*Joxe Ramonen oroitarria,  
beste askoren hobia  
zuri beltzetan zipriztinduta  
idatzi den historia  
gaur egun hori ezin da utzi  
ahazturan eroria  
datozenentzat altxor bat bada  
gertatuen memoria (bis)*

### Herritar baten ekarpena

*Langile umil eta jatorra  
Joxe Ramon gaztea  
Santakutzetan lagun girotik  
etxe bidean lotara  
hiltzaile haiek segatu zuten  
bizitzen hasia zena  
urteak pasatu dira baina  
inor ez gaude ahaztuta (bis)*

Franco hil osteko lehen urtetan ultras kuindarrek hainbat atentatu burutu ondoren heldu zen Ansa Etxeberriaren hilketa. Guztira, zortzi pertsona hil zituzten Astigarra-gatik Andoain bitarteko eremuan. "Heriotzaren hiru-kiaz" ezagutu zen Andoain-Hernani-Astigarraga eremua.



Igandean, Zezen-suzkoa amaitu berrian, Lebiton eta Krutzi igo ziren Zubiaurre etxera. Jai Batzordeko hainbat lagunekin batera, Andoaingo Martxarekin agurtu zituzten Santa Krutz jaiak. AIURRI

# Santa Krutz jaiei agurra, Lebiton eta Krutziren eskutik

**MAIATZAK 3, IGANDEA** JAIETAKO AZKEN EGUNA

Ohitura berria ezartzen ari da Jai Batzordea: Zezen suzkoa amaitu berrian Andoaingo Martxarekin jaiei agur esatea. Urteik urtera geroz eta jende gehiago hurbiltzen da

**Erredakzioa** ANDOAIN

Bukatu da, akabo! Baina amaiera ere moldatzen ari da Jai Batzordea. Hasi bezala, Zubiaurre etxetik egindako adierazpenak ematen dio, orain, amaiera jaiari. Aurten, Lebitonek hitz batzuk egin zituen kalean zituen festazaleei eskainita. Laburra izan zen mezua, zeinen ondo pasa

genuen adierazteko. Alboan zuen Krutzi maskota, aurtengo berrikuntza handiena. Eta balkoiaren albo banatan Jai Batzordeko kide gehiago batuta, Santa Krutz martxa jo zuten. Behin doinuak itzailita, akabo, bukatu ziren festak! Une horretan, Lebi zezen-suzkora hurbildutako haur eta guraso ugarik etxerako bidea hartu

zuten. Lehenago, arratsaldean, sagardo eta talo dastaketa izan zen Zumea plazan, eta auzuneko hamar tabernatan pintxo lehia-keta. Egunaren kontakizuna atzekoz aurrera eginda, goizeko ekitaldia izan zen jai guztietan solemnitare handiena duena: Banderaren jaitsiera. Dantzarien saioa zirraragarria da.



Lamberto Otermin aurrean eta, segidan, Andoaingo Bandera eskuan, Jose Antonio Fernandez PSEko zinegotzia. Atzean, aginte-makilarekin, Andoni Alvarez alkatea. AIURRI



Bandera, lau haizetara, urteotako berrikuntza da. AIURRI



Txindoki taberna izan da aurtengo pintxo lehiaketako irabazlea. Pozarren ziren. Argazkian, epaimahaikideen alboan. AIURRI



Iazko partaidetza handitu zen plaza-dantza emanaldian. AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak emanaldia egin zuen Kale Nagusian. AIURRI

## Txakolia eta sagardoa



Aurtengo podiuma: Gaztañaga (128), Lizeaga (125), Sarasola (119). AIURRI



Zumeatarak antolatutako txapelketan 12 sagardotegik hartu zuten parte. AIURRI



Basataloak lanean aritu ziren, igande arratsaldean. AIURRI



Goizean, txakolina. Eta, arratsaldean, sagardoa. AIURRI



# Andoaingo gurasoak, ezinbesteko bidelagunak

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bideratu du ekimena, eta Andoaingo Udala da babeslea. Haiekin batera rol garrantzitsua jokatzen ari da guraso taldea. Motibazioz gainezka, haiei zor zaie egitarau oparoa antolatu izana

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Euskararen alde ekitea da Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren muina, eta azken urteotan ekimen betean da. Bereziki, Andoain. Hainbaten artean, sona handiko hiru azpimarratuko genituzke: urtez urte indarra hartzen ari den Gau Beltza, Euskaraldiaren dinamizazio lana eta udazkenean antolatzen Azoka Berezia.

2026ko egitasmoen artean Eusfera antolatu du, Euskal Herriko beste 100 udalerriekin batera. Zer esanik ez dago egitasmo hauetan guztietan Andoaingo Udalaren lankidetzaz garrantzi handikoa izaten ari dela. Eusfera abian jartzeko, gainera, rol garrantzitsua jokatzen du guraso taldeak. Ikastetxeen bitartez deialdiaren berri jaso zuten urtearen hasieran eta, martxoaz geroztik, Eusfera Andoain antolatzen lanean ari dira. Motibazioz gainezka daude, gainera, eta haiei esker ekitaldiz beteriko maiatza izango da.

**Eusfera aurkezteko agerraldia, Plaza Morean**

Santakruzak amaitu eta, biharramunean, prentsa-agerraldia deitu zuen Larramendi Kultur Bazkunak. Nago Huizi euskara



Agerraldia egin zuten, astelehenean, Plaza Morean. AIURRI

taldeko teknikariak aintzat hartu zuen gurasoen ekimena eta haienganako esker ona adierazi zuen: "deialdia egin genuen Manuel Larramendi Kultur Bazkunetik, Andoaingo Udalaren laguntzaz, eta erantzun bikaina jaso genuen. Gutxira, guraso-taldea osatu zen eta ezinbestekoa izan da haien parte hartzea maiatzeko ekitaldi-sorta aurrera eraman ahal izateko. Beraz, eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimena antolatzera animatu zareten guraso guztiei". Agerraldian alboan zituen guraso taldetik lau partaide eta

Marta Lasa Andoaingo Udaleko Euskara Lansaileko zinegotzi ahaliduna. Gonbita luzatuta dago 0-12 urte dituzten guraso guztiei: "Eusfera Andoain antolatzen dugun guztien artean hitzorduetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Animatu eta ekin euskarari!".

**0-12 URTE BITARTEKO HAURREN ETA HAIEN FAMILIEN UNIBERTSOA EUSKALDUNAGOA IZATEA DA XEDEA**

## EUSFERA ANDOAINEN

### MAIATZAK 8

**OSTIRALA**

**JOLASAK**

**17:00** 2-6 urte bitarteko haurrentzat jolasak.

**18:00** 6-12 urte bitarteko haurren vs gurasoen arteko jolasak. Leizaur Parkean izango da ekitaldia.

Euriarekin, bi ekitaldiak Ondarreta Herri Eskolako jolastokian.

### MAIATZAK 12, 13

**ASTEARTEA, AZTEAZKENA**

**PARKETARRAK**

**17:00-19:00** Euskaraz jolasteko, dantzatze eta ondo pasatzeko tartearen edizio berria iritsi da Andoainera. Maiatzaren 12an, asteartea, Goikoplazan. Maiatzaren 13an, asteazkena, Zumea plazan.

### MAIATZAK 9

**LARUNBATA**

**ZIRKU TAILERRA**

**16:30** 5-12 urte bitarteko haurrentzat. Ordubeteko 3 txanda: 16:30 17:30 eta 18:30. Txanda bakoitzean, gehienez, 24 haur. Euria eginez gero, ekitaldia Ondarreta Herri Eskolako jolastokian egingo da.

### MAIATZAK 14

**OSTEGUNA**

**IPUIN KONTAKETA SAIOA**

**17:30** XoOoo! 0-6 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa musikatu, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Josiane Aguerre-Valenciak sortua eta Ainhoa Elizondo andoaindarrak musikatu.

### MAIATZAK 11-16

**ASTE OSOAN**

**GYNKANA MITOLOGIKOA**

Pistak jarraituz, herriko merkatalguneak bisitatu beharko dituzte partaideek, eta gune bakoitzean puzzleko pieza bat lortuko dute. Pieza guztiak bilduta, pertsonaia mitologikoaren puzzlea osatuko dute.

### MAIATZAK 17

**IGANDEA**

**EUSFESTA**

Etxeberrieta plaza. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako jolastokian. **11:30** Gymkanaren sari banaketa ekitaldia eta zozketa. **12:00-13:30** DJ Mikeltxi. Bazkaria, nork berea eraman behar du. **16:00** Plaza-dantzak.

**AIURRI**

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Aiurri eskuragarri:**

Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

**Maketzaileak:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartermendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urmietia).

**Diseinua:** Goiena / TOKIKOM.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus). Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urmietia udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBERNU VASCO  
KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.




# Parkea estaliko dute

Plazido Muxika plazan egurrezko estaldura jarri ostean, Urnietako Udalak Teresa Amuategi haur-parkea estaltzeko lanen hasiera iragarri du. Gauzak bere bidean, urtearen amaierarako prest izango da

**Lide Ruiz Telleria** URNIETA

Geroz eta ohikoagoa da haur parkeak estaltzea eta joera hori Urnietaraino iritsi da. Hala, Maximo Yurramendi kaleko parke ezaguna estaltzeari ekingo dio Urnietako Udalak. Iragarpena egin zuten astelehenean, hedabideen aurreko prentsaurrekoan, Jorge Segurado Urnietako alkateak eta Agurtzane Mercader alkate-ordeak.

Obra abiatzear da Teresa Amuategi parkean eta, gauzak ondo, parkea estaltzeko lanak urte amaierarako amaituta egongo liriteke. Alkateak zehaztu zuenez, estalkia hormaraino luzatuko da, eta horretarako, bertan dagoen zuhaitz-lerroa kenduko da. Estalkiaren egituraren barrualdean, bestalde, LED argi instalakuntza jarriko dute. Haur-parkea estaltzeko lanen aurrekontua, orotara, 163.000 eurokoa izango dela adierazi zuten.

Jorge Segurado alkateak adierazi zuenez, "azken parte-hartze prozesuetan errepikatzen ari zen herritarren eskaera" zen parkea estaltzea.



Maximo Yurramendi kaleko parkea. AIURRI



Agerraldia egin zuen Udalak, astelehenean. UDALA

## 2023tik da Teresa Amuategi parkea

Maximo Yurramendi kalean bizi izan zen urte luzez Teresa Martinez Gorrotxategi, Teresa Amuategi, herriko emagina eta idazlea. Hala, Urnietari egindako ekarpena eskertzeko, bere izena ipini zioten bizitokiaren ondoan dagoen parkeari. 2023ko irailean egin zuten inaugurazio-ekitaldia.

Bi belaunaldi osoren erditzeak artatu zituen Amuategik, eta eragile garrantzitsua izan zen Urnietako historiaren berreskurapenean zein zabalpenean. Izan ere, oso gustuko zuen idaztea: 1974an, "Monografía histórica de Urnieta" liburua argitaratu zuen. 1998an berriz, "Urnietako etxe eta baserriak".



Teresa Amuategi. URNIETAKO UDAL ARTXIBOIA

Teresa del Valle antropologo ezagunak idatzitakoa da honakoa: "lau emakume eredugarri daude XX. mendearen

azken urteetako Urnietan: Edurne Alkain Elozegi, Maria Arizmendi Isasa, Teresa Amuategi eta Lourdes Iriondo Mujika".



Informazio-gunea, Etxeberri plazan, artxiboko irudian. UDALA

## Partaidetzako aurrekontuen edizio berria martxan da

Urnietako 2026ko aurrekontu irekien lehenengo fasea martxan jarri da aste honetan

**Erredakzioa** URNIETA

Partaidetzako aurrekontuen prozesu berria abiatu du Urnietak eta dagoeneko zabalik dago partaidetza. Xedea aski ezaguna da herrikideentzat: 2027ko aurrekontuko 150.000 euro egitasmo honetara bideratuko da. Egitasmo honetan, Udalak oharrean jaso duenez, herrikideak protagonista bilakatzea da: "eurak izango dira proposamenak egingo dituztenak eta baita, aurrera eramango diren proiektuak aukeratuko dituztenak ere".

Proposamenak egin, haiek aztertu eta, azkenik, aukeraketa baten artean egokiena iruditzen dena bozkatu. Hori da Urnietako Udalak, azken urteotan, martxan jarri duen prozedura.

Lehen fasea abiatu da aste honetan, zeinean, heritarrek proposamenak egin dituen. Zer proposatu daiteke? Honatx, erantzuna: "Batetik, udal-eskumenekoak diren proposamenak: obrak, hirigintza eta mantentze-lanak. Bestetik, ekonomia edota teknika aldetik bideragarriak diren proposamenak. Zehazki, 50.000 eurotik beherako kostua dutenak". Interes orokorra eta udalerriko auzoen arteko oreka bermatzea dira Urnietako Udalak lehenetsiko dituen beste bi aldagaiak.

Aste honetan hasita, eta maiatzaren 24ra arte, 16 urte baino gehiago dituen Urnietan errol-datutako edozein pertsonak parte har dezake. Proposamenak herriko toki desberdinetan ko-

kutatuko kutxetan eta postontzietan utz daitezke. Eta digitalki partehartzeko modu bi daude: Urnieta.eus eta Urnieta APP bidez.

### Informazio karpa, datorren asteburuan

Ohi bezala, informazio karpa jartzen du Udalak.

#### Maiatzak 15, ostirala.

10:00-14:30 Etxeberri plaza.

17:00-20:00 Zubitxo plaza. Bertan photocalla izango da.

#### Maiatzak 16, larunbata.

10:00-14:30 San Juan plaza.

Uda ostean egingo da bozketa eta horren aurretik informazio-liburuxka bat bidaliko da etxetara lehenetsi diren proposamenekin eta bozkatzeko orriarekin.

### Ikasleen partaidetza

Azken urteetan egin den bezala lanketa berezi bat gauzatuko da Egape ikastolako eta Magale ikastetxeko LH6-ko ikasleekin, haien beharrak eta interesak ezagutzeko. Udalak aurrekontu irekien prozesura bideratutako 150.000 euroetatik, gutxienez, 15.000 erabiliko dira Urnietako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek egindako proposamenak gauzatzeko.

## UDAL ESKUMENEO PROPOSAMENAK EGIN DAITEZKE ABIATU DEN PARTE HARTZE PROZESUAN

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

**KO  
PA**



Zaletuen animoak beharko dtuzte ostiral honetan, Arraten. GAZTELEKU

**Andoain-Eibar, Herriartekoa**

Joanekoan, 2-1 galdu zuten Eibarren. Itzulikoa ostiral honetan da, Arraten, iluntzeko 20:00tan hasita

**Erredakzioa** ANDOAIN Maiatzaren 1ean, Eibarko Aste-lena pilotalekuan, Andoaingo pilotariak ez zuten zorte handirik izan eta jokatuak hiru partidetatik bi galdu zituzten. Kadeteen mailako partidaren An-

doaingo pilotariak 22-9 galdu zuten, jubenilen mailan 3-22 irabazi eta, nagusien mailan, 22-8 galdu. Itzuliko jardunaldia ostiral honetan jokatu da, maiatzak 8, Arrate pilotalekuan, iluntzeko 20:00etan hasita.

**Kopako finala jokatzeko helburu du Urnieta Artola harategiak**

Eskubaloiko senior gizonen garaipena (28-23), Donibane Eskubaloien aurka. Finala jokatzeko aukera lukete multzoko lehen postua lortuz gero. Jokoan zer zegoen jakinda, urnietarrak indartsu kantxaratu ziren: defentsan, sendo eta, erasoan, ondo. Abantaila hartu zuten hasieratik atsedenaldira iritsi arte (16-12). Bigarren zatian partida kontrolpean mantendu besterik ez zuten egin, 4-5 goleko abantaila mantenduz. Pasaitarrak azken unerarte saiatuko ziren arren, garaipena etxean geratu zen, txapelketan bizirik jarraitzeko bi puntu garrantzitsu eskuratu. Datorren jardunaldian Egiaren kantxan ariko dira, baina ez asteburu honetan, hurrengoan baizik. Partida irabazi eta beste taldeen emaitzen zain egon beharko lukete, finala jokatu ahal izateko.



Euskalduna, artxiboko irudian. AJURRI

**Erabakiorra izango den partida**

Ohorezko erregional mailan, Amaikak Baten zelaietan jokatu du Euskaldunak. Larunbatean, 17:45etan

**Erredakzioa** ANDOAIN Euskaldunak liderra jaso zuen eta Ubitarten, eta esku hutsik amaitu zuen (0-1). Hiru jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta helburua argia da: azken lau postuak atzean uztea.

**SAILKAPENA, 31. JARDUNALDIA**

13 Orioko	33
14 Amaikak Bat	31
15 Euskalduna	30
16 Mutriku	26
17 Hernani	25
18 Deustu	23

AZKEN GUDA KANTXA

**ERREMONTARI 2026**

MAIATZAK 11, ASTELEHENA 19:00etan / GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA  
**EZKURRA II · AZPIROZ VS ALDABE · BARRENETXEA IV**

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA  
**GOIKOETXEA V · JUANENEA VS ANSA II · ZUBIRI**

SARRERAK

ERREMONTARI

ORNA, SUKID, VOLVO, AJURRI

## “Bira Produkzioak: ‘Ekonomia beste modu batean egitea posible dela erakusten digu Beterri Saretuz sarearen parte izateak”

Beterri Saretuz sareko kide den BIRA PRODUKZIOAK-ek elkarlanaz, Ekonomia Sozial Eraldatzaileaz eta eskualdean sustraitutako jardunaz hitz egin du

**Erredakzioa** ESKUALDEA

**Beterri Saretuz sarearen baitan kokatzen zarete. Zer da Beterri Saretuz eta zer helbururekin sortu zen?**

Beterri Saretuz eskualdeko enpresa, kooperatiba eta eragile ezberdinek osatutako elkarlansarea da. Helburua da tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzaile batetik sustatzea, Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri hartuta.

**Zer balio partekatzen dituzue sarean?**

Elkarlana, konpromiso soziala eta erabakiak modu parte-hartzailean hartzea dira ardatzetako batzuk. Sarean gauden eragileok sektore eta tamaina desberdinetakoak gara, baina badugu ikuspegi komun bat: ekonomia tresna bat dela gizartea eraldatzeko.

**Zer ekarpen egiten dio sareak eskualdeari?**

Batetik, tokiko jarduera ekonomikoa indartzen du, bertako enpresen arteko harremanak eta sinergiak sustatuz. Bestetik, bestelako eredu ekonomiko bat existitzen dela eta martxan dagoela ikusarazten du. Gainera, proiektu bateratuak sortzeko eta ezagutza partekatzeko espazioa eskaintzen du.

**BIRA PRODUKZIOAK, zein da zuen jarduna?**

Ikus-entzunezko kooperatiba-ekoiztetxe bat gara, eta, nagusiki, enkarguzko bideogintza lanetan aritzen gara. Tarteka, guk geuk sorturiko ikus-entzunezko proiektuak ere sortzen ditugu, laburmetrai, fikzio edota dokumentalak kasu. Egune-

rokoan gidoigintza, errealizazio, grabazio eta edizio lanetan aritzen gara, udaletxe, enpresa-kooperatibo edota eragile kulturalentzat, euskaraz, eta, bizitza zentruan jartzen duen ekonomia baten alde eginez.

**Nola islatzen dira Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak zuen eguneroko praktikan?**

Alde batetik, lan jardun eta antolakuntzari dagokionean, langileon bizigarritasuna, erabakietan parte-hartzea eta inplikazioan jartzen dugu fokua. Bestetik, sortzen ditugun ikus-entzunezkoak inklusiboak, berdinzaleak eta euskaltzaleak izan daitezen saiatzeko gara, gertuko komunitatean eragiteko asmoz. Azkenik, kooperatibismoaren eta Ekonomi Sozial Eraldatzaile-



Lantaldea, Martin Ugalde Kultur Parkean. NAGORE LEGARRETA

learen printzipioetako bat interkooperazioa denez, gure sektoreko beste kooperatiba batzuekin elkarlanean aritzen gara hainbat proiektutan.

**Zergatik erabaki zenuten Beterri Saretuz sarean parte hartzea?**

Sarean egoteak aukera ematen digu antzeko balioak dituzten beste eragileekin harremana izateko, elkar ezagutzeko eta proiektu partekatutako sortzeko. **Zer ematen dizue sareteak? Eta zer ematen diozue zuek sareari?** Saretzeak babesa, konfiantza eta ikaskuntza partekatua ematen

dizkigu. Beste eragileen esperientzietatik ikasten dugu, eta lankidetzak aukera berriak sortzen dira. Guk, gure aldetik, gure esperientzia, jakintza eta konpromisoa jartzen ditugu sarearen zerbitzura.

\* Beterri Saretuz-ek eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri duten eragileak ikusarazten jarraituko du datozen hilabeteetan. Helburua argia da: badagoela bestelako ekonomia eredu bat erakustea, komunitatearekin lotura estua dutenak.

## “Andoain Bat” agenda bateratua aurkeztu dute

Udalerrian egiten diren ekitaldiak jaso eta sustatu asmoz, argitalpen bateratua aurkeztu du Udalak. Zabalkunderako hiru euskarri izango ditu, gainera: APP aplikazioa, Andoain.eus webgunea eta hilabetean behin banatuko den eskuorria



Agerraldi jendetsua egin zuten udaletxean, asteartean. AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Herritarrez osaturiko lantaldeak parte hartu du prozesuan eta dagoeneko errealitate bilakatu da. Aste honetan, Andoni Alvarez alkateak eta Marta Lasa kultura zinegotziak egin dute “Andoain Bat” agenda bateratuaren aurkezpena. Alkateak adierazi zuenez, “Andoain aberatsa eta mugimendu handiko udalerrria da, eta uste duguna baino ekitaldi gehiago burutzen dira. Baina, gero, zailtasunak izaten ditugu antolatzen den hori herritarrengana iristeko. Eta, hain zuzen, premia horri erantzutera dator Andoain Bat izeneko app aplikazio informatikoa”. Xehetasunetan sakondu zuen Marta Lasak: “Andoain Bat egitasmo berriaren bitartez, hilabetero, herrian antolatuko diren antzezlanak, kontzetuak, hitzaldiak, filmak, auzoetako jaiak, kirol hitzorduak eta tailerrak ikusteko plataforma izango da”.

Hasiara batean, udal informazioa jasoko da bertan. Eta, hilabete gutxira, herriko gizarte, kultur eta kirol elkarteek euren jardueraren berri emateko aukera izango dute”. Agenda ba-

teratuaren ideia prozesu luze baten emaitza izan dela gogorazi du Kultura zinegotziak: “Orain bi urte, Kultur Mahaian, udal ordezkariak, teknikariak eta herriko eragileak bat etorri ziren agenda bateratu baten premia identifikatzerako garaian”. Eskerrak eman dizkie, horregatik, prozesuan parte hartu zuten guztiei.

**Eskuorria, hilabetero, herriko toki jakinetan**

“Euskarri garbia eta argia da, zerbait praktikoa izan dadin nahi izan dugu, herritarren eskura egongo dena. Horretarako, zazpi lekuetan ipiniko da, hartzeko moduan: Urigain kultur etxean, Anbrosia Olabide erakinean, Gazte Lokalean, Atarian, Bastero Kulturgunean, Udal Liburutegian, eta, azkenik, Allurralde kiroldegian”.

**UDAL ETA GIZARTE MAILAKO ERAGILEEN HITZORDUAK ZABALTZEKO XEDEA DU EGITASMOAK**

# AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ERAKUSKETA

### ANDOAIN Konpartsa

"Lebiton eta gure pertsonaiak".  
Erraldoi eta buruhandien 30 urteko  
ibilbidea, erakusketara eramanda.  
**18:30, Bastero Kulturgunea.**  
**Maiatzak 14, osteguna.**

## AISIALDIA

### ANDOAIN Udalekuak

Goazen Jolastera eta hainbatetan  
parte hartzeko epea zabalik.  
**Izen-ematea, zabalik.**

## PARKETARRAK

### ANDOAIN Aisialdia

Euskaraz aritzeko edizio berria  
martxan da. 3-5 urtekoentzat, lehen  
txandan. 7-9 urtekoentzat, bigarrena.  
**17:15 / 18:15, Goikoplaza.**  
**Maiatzak 5, 12, 19, 26.**  
**17:15 / 18:15, Zumea plaza.**  
**Maiatzak 6, 13, 20, 27.**

## MUSIKA

### ANDOAIN NCC

Nuevo Catecismo Catolico eta The  
Safety Pins taldeak, zuzenean.  
**22:00, Gaztetxea.**  
**Maiatzak 9, larunbata. 10 euro.**

### URNIETA La Otra

Jabekuntza Eskolaren zikloaren  
amaiera kontzertua. Madrilen jaiotako  
abeslari eta konpositoreak intimitatea  
eta konpromiso soziala uztartzen ditu.  
**20:00, Sarobe.**  
**Maiatzak 22, ostirala.**

## GUNEA

### URNIETA Aurrekontu irekiak

Aurrekontu irekien prozedura berria  
martxan da. Ohi bezala, informazio-  
karpia jarriko du Urnietako Udalak. Bi  
egun iragarri ditu:  
**10:00-14:30, Etxeberri plaza.**  
**17:00-20:00, Zubitxo plaza.**  
Bertan photocalla izango da.  
**Maiatzak 15, ostirala.**

**10:00-14:30, San Juan plaza.**  
**Maiatzak 16, larunbata.**



Odol-emaileak, artxiboko irudian. AIURRI

### URNIETA, ANDOAIN Odola emateko aukera bikoitza

Odola emateko hitzordua.

**16:30, Gaztelekua. Maiatzak 7, osteguna. Urnieta.**

Hitzordua telefonoz hartzea gomendagarria da: 943 007 884. Internet bidez ere  
har daiteke hitzordua, gotatanta.eus gunean sartuta.

**16:30-20:15, Osasun Etxea. Maiatzak 11, astelehena. Andoain.**

## ANTZERKIA

### ANDOAIN "52 hertz"

Ados teatroren eskutik, isolamendu  
sozialaren bakardade uneak sufrizten  
dituztenen gaineko begirada.  
**19:30, Bastero Kulturgunea.**  
**Maiatzak 15, ostirala.**

### URNIETA "Herencia"

Gertakari traumatiko batek bikote  
baten bizitza astindu du. Dena gaueko  
ordu txikitik gertatzen da Javi eta  
Aliciaeren logelan. Aktoreak: Isidoro

Fernandez, Aizpea Goenaga, Garbiñe  
Insausti eta Iñaki Rikarte.  
**19:00, Sarobe.**  
**Maiatzak 17, igandea.**

## MATRIKULAZIOA

### ANDOAIN Galardi

0-1 eta 1-2 urteko taldeetarako  
matrikula epealdia zabalik da,  
irailean hasiko diren haurrentzat.  
Matrikulazio Atarian eta Andoain.eus  
webgunean egin daiteke.  
**Azken eguna: maiatzak 19.**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## ZORION-AGURRAK



URNIETA

**Zorionak, Paul eta aitona Angel!**  
Maiatzaren 7an eta 14an urteak betetzen  
dituzue. Zorionak etxeko guztion partez!



ANDOAIN

**Leire Rekalde**  
Leirek maiatzaren  
6an 37 urte beteko  
ditu. Zorionak! segi  
horrela irribarretsu.  
Asko maite zaitugu,  
muhu handi bat  
etxekoan partetik,  
eta pozik bizi!



ANDOAIN

**Jare Beraza  
Alvarez**  
Maiatzaren 12an  
Jare Beraza  
Alvarezek 5 urte  
egingo ditu. Ondo  
ondo pasa zure  
eguna. Maite  
zaitugu. Etxekoak.

## KOMUNITATEA

### ERRIGORA URNIETA

## Badator udaberriko kanpainako produktuen banaketa!

Kaixo, urnietar! Badator udaberriko kanpainako produktuen  
banaketa! Etor zaitez egun horietako batean zure eskaria  
jasotzera! Ordainketa eginda ez baduzu, eskudirutan egin  
beharko duzu... Kopuru zehatza ekarri! Eskerririk asko  
ekarpenagatik! Eskutik eskura egiten dugu herria!

### NOIZ?

- Maiatzak 8, ostirala (17:00-19:00).
- Maiatzak 9, larunbata (10:00-12:00).

### NON?

- Maximo Yurramendi kalea 19, behea (garai bateko Elorri  
belar-denda).

## ZINEMA



**ANDOAIN**

**BASTERO**

**Incontrolable  
(I Swear)**

Lar., 9. 19:30.

Igandea, 10. 19:30.

Astelehena, 11.

17:00, 19:30.

**Maracuda**

Lar., 9. 17:00.

Igandea, 10. 17:00.

**Kraken: El libro  
negro de las  
horas**

Lar., 16. 19:30.

Igandea, 17. 19:30.

Astelehena, 18.

17:00, 19:30.



### SINOPSIS

#### Incontrolable

**Zuzendaria, gidioia:** Kirk Jones. **Aktoreak:** Robert Aramayo, Shirley Henderson, Maxine Peake, Scott Ellis Watson. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia. **Jatorria:** Britainia Handia (2025). **Iraupena:** 120 m.

## Bogako filma, eta aktore bikaina

John Davidsonen benetako istorioa. Tourettekin 15 urte zituela  
diagnostikatua, bere lagunek zorotzat hartua, gutxi ikusi zuten  
baldintza batekin borrokatu zen. Heldua zela, Tourette  
sindromearen aldeko kanpaina egin zuen.